

La **Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioa** inicia con esta publicación el primer número de sus *Cuadernos*, que recogerán periódicamente el pensamiento y la opinión vertida en las jornadas, cursos y seminarios que la Fundación organice. En lo que respecta a las denominadas Jornadas de *reflexiones sociales*, pretendemos que se constituyan en un referente de opinión desde la sociedad sobre los diferentes temas que conciernen a la ciudadanía. La primera edición de estas jornadas tuvo lugar en los meses de octubre y noviembre del pasado año, en el Palacio de Villa Suso de Vitoria-Gasteiz, coincidiendo con el vigésimo segundo aniversario del Estatuto de Autonomía del País Vasco.

Este primer número, que nace bajo el título “Cuadernos de reflexiones sociales: El Estatuto de Autonomía del País Vasco”, quiere mediante la combinación del soporte papel y el soporte digital, responder a un nuevo estilo de edición, más actual e interactivo, con el imprescindible reforzamiento mutuo entre los modos tradicionales de la edición escrita y la edición digital.

**Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioak**, argitalpen honekin, bere *Koadernoak* sailaren lehenengo zenbakia atara du. Sail horretan, aldian-aldian, Fundazioak antolatutako jardunaldi, ikastaro eta mintegietan plazaratutako pentsamenduak eta iritziak jasoko ditugu. *Gizarte gogoetarako jardunaldiak* izeneko horiek, berriz, hiritarrei dagozkien gaiei buruz gizartetik emandako iritzien adierazgarri izatea nahi genuke. Jardunaldien lehenengo saioa iazko urrian eta azaroan izan genuen, Gasteizko Goiuri jauregian, Euskadiko Autonomia Estatuaren hogeita bigarren urteurrenarekin batera.

Lehenengo zenbaki hau *Gizarte Gogoetarako: Euskadiko Autonomia Estatutua*. Jardunaldietako *Koadernoak* izenburuarekin jaio da. Papereko euskarria eta euskarri digitala uztartuz, argitalpen estilo berri bat, eguneratuagoa eta elkarreragileagoa, eskaini nahi du. Hartara, argitalpen idatziaren bide tradizionalak eta argitalpen digitalaren bide berriak elkar indartzea da gure asmoa.

Es una de las prioridades de la Fundación cumplir una labor divulgativa que, aprovechando las nuevas herramientas de comunicación e información contemporánea, articule la participación y la acción cívica a través de su actividad editorial. La colección de publicaciones que ahora se inicia, responde a dicha finalidad.

En el libro que tienen en sus manos se reproducen algunos extractos seleccionados de las intervenciones registradas en las mencionadas jornadas. Esta selección de textos va precedida de un breve estudio introductorio que recoge los hitos más sobresalientes de estos veintidós años de vida del Estatuto, y en la parte final se incorpora un anexo con información adicional presentada mediante tablas y cuadros gráficos.

En el CD-ROM, además de la reproducción íntegra de las intervenciones de las jornadas, en texto y audio, puede encontrarse un apéndice documental con bibliografía, e índices referidos a la cronología estatutaria, al proceso de transferencias, índice onomástico así como la biografía de

Fundazioaren lehentasunetariko bat da, egungo komunikazio eta informazio tresna berriez baliatuz, argitalpen jardueraren bidez herritarren partaidetza eta ekintza egituratuko duen zabalkunde lana egitea. Orain abiatu den argitalpen bildumak, bada, helburu horri erantzuten dio.

Eskuartean duzun liburu honetan, jardunaldietako hitzaldietatik aukeratu ditugun pasarte batzuk ageri dira. Pasarte aukeratu horien aurretik, sarrera gisako azterketa bat dago; Estatutuaren hogeita bi urteko bizialdi honetan izandako gertaerarik nabarmenenak azaltzen ditu. Pasarteen bukaeran, berriz, eranskin bat dago, taulen eta koadro grafikoen bidez informazio gehigarria emateko.

CD-ROMean, jardunaldietako hitzaldiak osorik jaso ditugu. Gainera, argitalpen honen aberasgarri, hor dituzu dokumentuzko eranskin bat (bibliografiarekin), eta hainbat aurkibide: Estatutuaren kronologiarena, transferentzia prozesuarena eta pertsona izenena (onomastikoa). Sarre-

los intervinientes en las jornadas, que enriquecen la edición. Para la elaboración del estudio introductorio, de los anexos y apéndices documentales, y la selección de los extractos, la Fundación ha contado con la eficiente colaboración del Departamento de Ciencia Política y de la Administración de la Universidad del País Vasco/ Euskal Herriko Unibertsitatea.

Decíamos en la invitación cursada para la asistencia a las Jornadas que el Estatuto de Autonomía se había contemplado desde la perspectiva jurídica, siendo, por tanto, objeto de estudio y de aplicación en el campo del Derecho. Decíamos que también el Estatuto de Autonomía tenía, naturalmente, una dimensión política. El procedimiento de su elaboración y aprobación subraya el carácter político de los acuerdos que lo hicieron viable.

Pero señalábamos, en cambio, cómo esta norma institucional básica ha proyectado una relación subjetiva con los ciudadanos de menor calado social desde una perspectiva pedagógica. Y, sin embargo, surgió también como un instrumento idóneo

ra gisako azterketa hori eta taulak, koadro grafikoak nahiz dokumentuzko eranskinak egiteko, Euskal Herriko Unibertsitateko Politika eta Administrazio Zientzien Sailaren laguntza eraginkorra izan du Fundazioak.

Jardunaldietara gonbidatzeko bidalitako gutunean esan genuenez, Autonomia Estatutuari ikuspegi juridikotik begiratu zaio, hau da, Zuzenbidearen arloan aztertua eta aplikatua izan da. Orobat esan genuen Autonomia Estatutuak, jakina, alde politikoa ere bazuela. Estatutua taxutzeko eta onartzeko prozedurak, ez bairik gabe, Estatutua bideragarri egin zuten akordioen izaera politikoa nabarmentzen du.

Baina, orduan adierazi genuenez, pedagogiaren ikuspegitik, gizartean hainbeste barneratu ez den hiritarrekiko erlazio subjektiboa eman du oinarrizko erakunde-arau honek. Eta, hala ere, hiritartasuna gauzatzeko tresna ezin hobet-

para la práctica del ejercicio de la ciudadanía, al establecerla igual para todas las personas que tuvieran vecindad administrativa en cualquiera de los municipios de la Comunidad Autónoma de Euskadi.

Además, y entre otras potencialidades, el texto estatutario ofrece las herramientas precisas para facilitar el desarrollo de procesos de integración y cohesión social. El ejercicio práctico y la gestión eficaz de dichas herramientas del autogobierno, en cuanto satisfacen necesidades de la ciudadanía y procuran, en consecuencia, calidad de vida y bienestar, fomentan la autoestima colectiva y las actitudes cívicas constructivas.

Del mismo modo, el Estatuto puede y debe ser un factor de salud colectiva, en cuanto hace posible la conciliación de referentes identitarios o nacionales diversos, y ofrece elementos de equilibrio indudables para que las diversas identidades no tengan que percibirse como necesariamente contrapuestas, sino como razonablemente conciliables, e, incluso, armoniosamente vividas.

zat sortu zen, bizileku administratiboa Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan duten pertsona guztientzat berdina baita.

Gainera, beste hainbat ahalmenen artean, gizartekotzea eta gizartea kohesionatzea ahalbidetzeko beharrezko tresnak eskaintzen ditu Estatutuaren testuak. Autogobernu tresna horiek praktikan erabiltzeak eta eraginkortasunez kudeatzeak, hiritarren beharrianak asetzen dituzten heinean —eta, horrenbestez, bizi kalitatea eta ongizatea ematen duten heinean—, autoestima kolektiboa eta hiritarren jarrera konstruktiboak sustatzen ditu.

Era berean, Estatutua osasun kolektiboaren faktore izan ahal eta behar da. Izan ere, hainbat nortasun eta nazio erreferente bateratzea ahalbidetzen du, eta oreka elementuak eskaintzen ditu, dudarik gabe, nortasun horiek nahitaez kontrajarriztat hartu beharrik ez izateko; aitzitik, Estatutuari esker, nortasun horiek elkarren etsai izan gabe bizitzeko modua dute, baita harmonian ere.

Hoy, cuando caminamos hacia los veintitrés años de su ratificación mediante referéndum popular, el Estatuto sigue polarizando una principalísima atención en el debate político y social del País Vasco. El Parlamento Vasco, en una Comisión especial sobre Autogobierno, lo analiza de una forma minuciosa e intensa. Mientras esto sucede, el desarrollo del proceso de transferencias pendientes se encuentra lamentablemente bloqueado desde hace ya tres años. Al mismo tiempo, coexisten las voces en el seno de nuestra sociedad que postulan su superación al entender que *“ya no une a los vascos”*, con aquellas otras que defienden que esta norma básica es precisamente la garantía para superar *“los conflictos entre los ciudadanos vascos”*.

Evidentemente, y a la luz de la presente situación, no resulta fácil predecir el futuro del Estatuto. La **Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioa** tiene la satisfacción de recoger en esta publicación algunas opiniones de indudable valor social sobre el pasado, presente y futuro del Estatuto vasco, como sere-

Egun, Estatutua herri erreferendumean onartu zenetik hogeita hiru urte betetze-ko bidean gauden honetan, Estatutua puri-purian dugu Euskadiko politikako eta gizarteko eztabaidan. Eusko Legebiltzarra, autogobernuari buruzko batzorde berezi batean, xehetasunez eta bizitasunez aztertzen ari da. Bien bitartean, emateko dauden transferentzien prozesua tamalez blokeatuta dago; jadanik hiru urte dira halaxe dagoela. Eta, gure gizartearen baitan, hainbat ahotsek Estatutua gainditzea aldarrikatzen dute, haien ustez *“jadanik ez baititu euskaldunak batzen”*, eta beste hainbatek dio oinarrizko arau horixe dela *“euskal herritarren arteko gatazkak”* gainditzeko bermea.

Bistan denez, daukagun egoera ikusita, ez da erraza Estatutuaren etorkizuna iragartzea. **Fundación Fernando Buesa Blanco Fundazioa** atseginez bildu ditu argitalpen honetan euskal Estatutuaren iraganari, orainari eta geroari buruzko zenbait iritzi —gizarte balio handiko iritziak, dudarik gabe—, beharrezko gizarte ezta-

na contribución a este necesario debate social.

Fernando Buesa creía en el enorme valor del Estatuto de Autonomía de Gernika, y, por ello, abogaba con firmeza por la celebración orgullosa y hasta solemne de los sucesivos aniversarios del Estatuto, como modo necesario de recordar y reivindicar un momento histórico esencial en la reciente historia de este pueblo, en el que fue posible poner de acuerdo a una amplia mayoría de vascos en torno a un instrumento regulador de un marco común de convivencia para el libre y plural ejercicio de la ciudadanía democrática. Por ello, este primer número se edita en su memoria.

En Vitoria-Gasteiz,  
a 31 de marzo de 2002  
Francisco Javier Blanco Herranz  
*Secretario General de la Fundación*

baida honetara patxadaz egindako ekarpen gisa.

Fernando Buesak uste osoa zuen Gernikako Autonomia Estatutuan, eta, horregatik, irmo egiten zuen Estatutuaren urteurrenak harrotasunez eta are handitasunez ospatzearen alde. Haren iritziz, herri honen oraintsuko historiako funtsezko une bat gogoratzeko eta aldarrikatze beharrezko modua da; izan ere, une historiko hartan, euskotarren gehiengo zabal bat ados jartzea lortu zen, hiritartasun demokratikoa libre eta aniztasunez gauzatzeko bizikidetzaren esparru komun bat arautzen duen tresna baten inguruan. Horregatik, haren oroimenez argitaratuta lehenengo zenbaki hau.

Vitoria/Gasteizen,  
2002ko martxoaren 31n.  
Francisco Javier Blanco Herranz  
*Fundazioko idazkari nagusia*